BARAKALDOKO II. SAN SILBESTREA 2015-AREN ARAUDIA

1- SOCIEDAD CICLISTA BARAKALDESA-k **Barakaldoko II. SAN SILBESTREA 2015** antolatzen du. Federazioaren lizentzia izan gabe ere, bertan parte hartu ahal izango da. Lau lasterketa ospatuko dira, hurrengo adin-talde edo mailez osatuta:

- Txikiak/txupeteak.

- Pre-Benjaminak, Benjaminak eta Alebinak.

- Infantilak eta Kadeteak.

- Jubenilak, Juniorrak, Promesak, Seniorrak eta Beteranoak.

2- Lasterketa **2015ko abenduaren 31ean** ospatuko da, **17:00tan** Barakaldoko Herriko Plazan, Jubenilak, Juniorrak, Promesak, Seniorrak eta Beteranoak mailan. Txikiak/txupeteak karrera **16:00tan** izango da, Pre-Benjaminak, Benjaminak eta Alebinak mailetako karrera **16:15tan** eta Infantilak eta Kadeteak mailetakoa **16:35tan**.

3- Lasterkariek kaltzada erabili beharko dute. Debekatuta dago bidegorria edota espaloia erabiltzea eta lasterketen distantziak hauek izango dira:

- Txikiak/txupeteak: **500 metro**.

- Pre-Benjaminak, Benjaminak eta Alebinak: **1000 metro**.

- Infantilak eta Kadeteak: **1500 metro**. Nagusien lasterketan parte hartu ahalko dute, baldin eta nagusi bezala isen ematen badute eta beraien izenean dagoen atletismoko federatu txartela aurkezten baldin badute.

- Jubenilak, Juniorrak, Promesak, Seniorrak eta Beteranoak: **6000 metro**.

4- Ibilbidea markatua egongoa da eta probaren amaieran **hornidura** egongo da.

5- Dortsala pertsonala da eta transferaezina da. Bularrean jarri beharra dago. Denboraren neurketa txip bidez egingo da, dortsalarekin batera banatuko delarik.

6- Proben **izen ematea eta dortsalen banaketa:**

IZEN EMATEA:

*Jubenilak, Juniorrak, Promesak, Seniorrak eta Beteranoak MAILETARAKO:

- **Sei /6/ euroren** truke **www.sailkapenak.com**-en 2015ko abenduaren 29ra arte.

- **Deportes OTO** (Foru Pasealua 6, BARAKALDO) dendan espezializatuan, **2015ko abenduaren 30 arte. Kostua: sei /6/ euro. Zortzi /8/ euro 2015ko abenduaren**

30ean.

-- **RunningBilbao** (c/ Ercilla nº 7, BILBAO), dendan espezializatuan, **2015ko abenduaren 29 arte. Kostua: sei /6/ euro.**

-**BARAKALDOKO Herriko Plazan 2015ko abenduaren 31an 11:00etatik, lasterketaren ordu erdi baino lehenagorarte, zortzi /8/ euroren truke**.

*GAINONTZEKO MAILETARAKO:

Leku eta ordutegi berdinak. **Kostua: Iraunkortasun handiko janari kilo bat. Janari kiloa 30 edo 31ean emango da, dortsala artzerakoan.**

DORTSALEN BANAKETA:

- **Deportes OTO** (Foru Pasealua 6, BARAKALDO) dendan espezializatuan, 2015ko abenduaren 30ean eta BARAKALDOKO **Herriko Plaza** 2015ko abenduaren 31an 11:00etatik, lasterketaren ordu erdi baino lehenagorarte

7- Lasterkari guztiek **opari** bat jasoko dute. Nagusiek txipa bueltatzeko orduan, lasterketaren amaieran.

8- Sari hauek banatuko dira:

- Maila nagusiko lehen Gizon eta Emakumeari: Txapela

- Maila nagusiko bigarren eta hirugarren, emakume eta gizonei: Garaikurra.

-Bertakoak (Barakaldotarra): Garaikurra

9- Lasterketa segitzeko baimena izango dute ibilgailuak Antolakuntzak izendatutakoak izango dira bakarrik. Guztiz debekatuta dago lasterkariak segitzea oinez nahiz edozein ibilgailuz.

10- Parte hartzaile eta laguntzaile guztiek Erantzunkinzun Zibilaren Asegurua izango dute

11- Antolakuntzak ez du bere gain hartzen edozein lasterkarik bere buruari edota beste edozeini egin ditzazkiokeen kalte moral zein fisikoak.

12- Gaitz fisiko edo psikikoen bat duten pertsonek ezingo dute lasterketan parte hartu. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko hauetako pertsonen batek lasterketan dortsalik gabe parte hartuko balu eta kalteren bat sufituko balu, edota norbaiti kalteren

bat sortuko balio. Gainera lasterketatik ateratzera derrigortu lekioke.

13- Antolakuntzak eskeinitako **Zerbitzu Medikua** izango du lasterketak.

14-Gizonezko eta emakumezko **MAILAK** honela ezartzen dira, dagokien distantziekin:

- Txikiak/txupeteak: 2008ko urtarrilaren 1etitk aurrera jaiotakoak (0 eta 6 urte bitartekoak). Tuture baten laguntzarekin korrika egin ahalko dute. 500 metrotako lasterketa.

- Pre-Benjaminak, Benjaminak eta Alebunak: 2003ko urtarrilaren 1a eta 2008ko abenduaren 31a bitartean jaiotakoak, (6 eta 11 urte bitartekoak). 1000 metrotako lasterketa.

- Infantilak eta Kadeteak: 1999ko urtarrilaren 1a eta 2002ko abenduaren 31a bitartean jaiotakoak, (12 eta 15 urte bitartekoak). 1500 metrotako lasterketa

- Jubenilak, Juniorrak, Promesak, Seniorrak eta Beteranoak: 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaiotakoak. (16 urtetik gora). 6000 metrotako lasterketa.

Lasterkari guztiek beraien adina lizentzia, DNI-a edota pasaprtea erakutsiz zihurtatu beharko dute.

15- Barakaldoko II. SAN SILBESTREA 2015-an izena ematean, lasterkariek beraien edozein datu eta argazkiren, edozein sistema tekniko edo teknologikotan, munduko lurralde guztietan, elektronika bidezko eta ohiko erreproduzitze bidezko erabilpena, promozio eta hedatzearen eskubideak SOCIEDAD CICLISTA BARAKALDESAri lagatzen dizkio, dena ezta eskubide ekonomiko, ezta edozein tarifa sortu edota ezarri gabe.

16- Antolakuntzak aurreko edozein puntu berritzeko eskubidea izango du, ibilbidea, sariak, etb.

17- Izena ematen duten pertsona guztiek araudi hau onartzen dute. Araudia ez ezagutzeak ez ditu parte hartzaileak berau bete beharraren aske uzten.